



ASTEARTEA

2019/01/08
7. urtea, 984. zenbakia
107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

Aldaketak,
Asteasuko
hiri hondakinen
bilketa sisteman //



TOLOSALDEA

ARRAUNAREN HARROBIA

Tolosaldeko Arraun Klubak 2019ko batel denboraldia aurkeztu du; 145 lagunek osatzen dute taldea eta lehen hitzordua larunbatean bertan dute, Trintxerpen //

Ataria bertso jaialdia

Sarrerak Salgai 12€

Maialen Lujanbio Andoni Egaña Amets Arzallus

Oihana Iguaran Nerea Ibarzabal Haritz Mujika

Gai jartzailea
Amaia Agirre

2019

Urtarrilak 19,
larunbata, 19:00etan
Tolosako
Leidor antzokian

Tolosa: Orbela taberna
Ibarra: Galtzaundi taberna
Amasa-Villabona: Amasa okindegia



Azken urteetan, Tolosaldeko langabeziaren beherakada pixkanakakoa izan da; Gipuzkoako beste zazpi eskualde ditu aurretik, datu hobeekin. JON MIRANDA

Urtebetean ia puntu bat jaitsi da Tolosaldeko langabezia tasa

Guztira 2.057 herritar daude langabezian, %8,93ko tasa osatuz, eta Orendain da tasa baxuena duen herria; Gipuzkoa mailan, beste zazpi eskualde ditu Tolosaldeak aurretik

Irati Saizar Artola

Beherako joerarekin jarraitzen du langabezia tasak eskualdean. Azken lau urteei erreparatuta, 2014ko abendutik 2018kora, 5,41 puntu jaitsi da tasa. 2017a, Tolosaldean, 2.262 langaberekin amaitu baldin bazen, bukatu berri den urtea 2.057 langaberekin

itxi dute 28 herriek. Datu horiek eman ditu urtea amaituko ordurako SEPEk.

2017ko irailetik abendura bitarte lortu zen tasa %10etik jaitsia, %9,82ko tasarekin amaitu baitzen urtea. Ordu ezkeror, urtebetean, 0,89 puntu jaitsi da tasa. Egun, zehazki, %8,93ko langabezia tasa osatzen du eskualdeak.

Tolosaldeko 28 herriak kontutan hartuta tasa jaitsi bada ere, ez du esan nahi herri guztiek joera bera izan dutenik. Sei herritan igo egin da langabetuen kopurua: Elduain, Alkiza, Berrobi, Ikaztegieta, Orexa eta Bidania-Goiatzen. Tasari begira Elduainek izan du igoera handiena, 2,79 puntu hazi da langabezia tasa, iaz baino 4 langabetu gehiagorekin. Horren jarraian dator Alkiza; 2,69ko igoera izan du eta 5 langabetu gehiago ditu aurrean. Segidan daude Berrobi 4 langabetu gehiagorekin, Ikaztegieta 2 gehiagorekin, eta Bidania-Goiatz eta Orexa, bi horiek langa-

be baten igoera izan dute iaztik hona. Aipatu behar da iaz Orexa langabeturik ez zuen herri bakarra zela; momentu honetan, bat du.

Igoerarik eta jaitsierarik izan ez duen herri bakarra Amezketa izan da. %9,05ekin jarraitzen du, 41 langabeturekin bukatu zuen 2017a eta halaxe hasi du 2019a. Gainerako herriek beheranzko joera erakutsi dute. Hala ere, Tolosaldeko urte osoko datu orokorreari begira, ez da progresiboa izan jaitsiera: izan ere, ekainetik irailera bitarte 0,13 puntu igo zen tasa, 30 langabetu gehiago izan ziren denbora tarte horretan.

Tasari baxuenen artean dira Albiztur (%1,33; 2 langabetu),

Gaztelu (%1,19; langabetu bat), Orendain (%1; langabetu bat) eta Orexa (%1,79; langabetu bat).

GIPUZKOAKO ZORTZIGARRENA

Gipuzkoako hamaika eskualdetatik zortzigarren langabezia-tasa baxuena du Tolosaldeak. Aurretik ditu Urola Kosta, Goierri, Debagoiena, Donostialdea, Donostia, Urola Garaia eta Urola Erdia. Atzetik, berriz, Oarsoalde, Bidasoalde eta Debabarrena ditu.

Gipuzkoako datu orokorreari erreferentzia eginez, langabezia-tasa %9,08koa da; 31.678 herritar daude langabezian. Iaztik, 0,66 puntuko jaitsiera izan du, hau da, 2.294 langabetu gutxiago.



KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Etxeko lanak. Pertsona bat behar dugu etxeko lanak egin eta bi pertsona zaintzeko, Tolosa erdigunean,

astelehenik larunbatera, lanaldi osoan. Urtarrilean bertan hasteko. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 600 56 20 73.

Txartel batekin irekiko dira errefusarako edukiontziak

Asteasun hondakin organikoak biltzeko, auzo konposta guneekin batera, txartel bidez funtzionatuko duten bi edukiontzi jarriko dituzte

Jon Miranda Asteasu

Asteasuko hiri hondakinen bilketa sisteman aldaketa nabarmenak egin ziren 2013an hondakinak hobeto bereizteko helburuarekin. Hasiera batean aldaketek harrera ona izan zuten, baina azkenaldian herritarrek dituzten jarrera eta ohituretan «motelaldi nabarmena» atzeman dela jakinarazi du Asteasuko Udalak. Arazo honen zergatiak aztertu eta herritarren iritzia ezagutzeko partaidetza egitasmo bat gauzatu zen 2018an. «Herritarren usteetan bilketa sistemaren ahuleziak azaleratu dira eta horiei irtenbide bat eman nahian, hiri hondakinen bilketa eta kudeaketa sisteman aldaketak egitea adostu da».

Errefusaren edukiontzi berriak jarri eta irekitzeko txartel elektronikoa erabiliko da hemendik aurrera. Familia bakoitzeko txartel bat banatuko da eta txartel horrekin astean zehar gehienez edukiontzia lau aldiz ireki ahal izango da, edozein egun eta ordutan. Herriko edozein edukiontzi erabili ahal izango da. Gainera, bilketa puntuen berrantolaketa egingo da, batez ere, industrialdean eta landa eremuan eta 13 puntuetatik 9ra pasako da, «beti ere malgutasunez jokatu», udalaren esanetan.

Behar berezien arabera, adibidez, etxean fardelak erabiltzen dituzten haurrak edo adineko pertsonak izanez gero, txartelaren irekitze-kopurua areagotu daiteke. Txartelak ostirala bitar-

tean Kale Nagusian zabaldu den informazio bulegoan jaso behar-ko dira. Tolosaldeko Mankomunitatea hezitzailea egongo da bertan, Kutxako bulego zaharrean. Astelehenetan 11:30etik 14:00etara, asteartetan 17:00etatik 19:00etara, asteazkenetan 11:30etik 14:00etara, ostegunetan 17:00etatik 19:00etara eta ostiralean 11:30etik 14:00etara. Herritarren kezkak argitu eta aldaketek eragin ditzaketen arazak kudeatzeko egongo da zabalik bulegoa. Sarraila elektronikoa bidezko sistema berria urtarrilaren 2lean aktibatuko da.

ORGANIKORAKO EDUKIONTZIAK

Papera eta kartoia eta ontzi arinak biltzeko edukiontzi berriak jartzea adostu dute parte hartze prozesuaren ondoren. Horrekin batera, hondakin organikoaren bilketarako sarraila elektronikoa duten edukiontzi marroiak jartzea erabaki da. Errefusaren txartel berdina balioko du hondakin organikoaren edukiontzietarako eta kasu honetan, urtarrilaren 15etik aurrera aktibatuko dira informazio bulegoan.

2013tik hona, konpost-guneetan biltzen da hondakin organikoa eta orain, froga modura bi edukiontzi marroi jarriko dira herrigunean. Denbora epe batean hondakin organikoak kudeatzeko bi sistemak batera funtzionatuko dute, eta gero, udalak emaitzak eta funtzionamendua aztertu ondoren zein sistema mantendu erabakiko du. Eskareren arabera, hasierako bi edu-



Asteasuko Kale Nagusiko seigarren zenbakian dago kokatuta herritarren arretarako bulegoa. J.M.



Auzo konposta guneetan bildu dute orain arte hondakin organikoa herrian. J.M.

kiontziez gain, beste guneetan gehiago jartzeko aukera ere aztertuko da.

Hondakin organikoa biltzeko edukiontziak mugarik gabe erabili ahal izango dira, eta horretarako behar diren poltsa konpostagarriak udalak banatuko ditu. Bestalde, herriko denda, taberna, ikastetxe eta elkarteei, alegia

sortzaile bereziei, atez ateko bilketa sistema eskainiko die udalak, hondakin organikoa eta papera eta kartoia jasotzeko. Tamaina handiko hondakinen bilketa egunera arte itxaron ezin dutenei, berriz, gogorazi nahi zaie, astelehenetik larunbatera, Andoain eta Tolosako Garbiguneak erabil ditzaketela.

ERRONKA KOLEKTIBOA

Aldaketa guzti hauekin Asteasun sortzen den errefusa gutxitu eta aldi berean gaikako bilketa areagotu nahi da, gutxienez, %65era igoz. Edozein kasutan, Asteasuko Udalaren eta Tolosaldeko Mankomunitatearen borondate eta konpromisoa da egokitzapenaren gertuko jarraipena egitea, partaidetza egitasmoan hainbatetan aldarrikatu den hobekuntza hori benetan lortzen den ziurtatzeko.

Bide batez, udalak lanketa ahalbidetu duten herritarrei eskerrak eman nahi izan dizkie, eguneroko bizipen eta hobetzeko proposamenak partekatzea-gatik, «sortzen ditugun hondakinak ondo bereizi eta kudeatzea, erroka kolektiboa bihurtu den ardura baita». Herritarren laguntza eskertzeko, edukiontzietarako txartela informazio bulegoan jasotzen dutenen artean bertako produktuen saski bat zozkatuko da urtarrilaren 14an, datorren astelehenean.

Eskualdetik ere pasa dira Errege magoak

Tolosaldeko 12 herritan egin zituzten desfileak, larunbatean. Haurrek ez zuten Meltxor, Gaspar eta Baltasar besarkatzeko aukera galdu nahi izan



Tolosan arrakasta izan zuen desfileak; Iruran, txokolate beroa eskertu zuten. J.A.

Josu Artutxa Tolosa

Uzturre mendiko magaletik, Izaskun auzotik behera jaitsi ziren Tolosako Meltxor, Gaspar eta Baltasar. Nafar zubitik begiratu-ta, suaren argia goitik behera zihola ikus zitekeen. Hirurak ere zaldi gainean heldu ziren Tolosako Zerkausi parera, pajeen laguntzarekin. Ordurako, haurrak emozioz gainezka zeuden, eta oihuka jaso zituzten Errege magoak.

Plaza Zaharretik abiatu zen desfilea, eta Ekialde Urruneko Errege magoak heltzeko zain zeuden denak. Tolosako Buruhandi eta Erraldioen konpartsa kideak, Udaberri Dantza Taldeko ikastaroetako haurrak, Musika Eskolako ikasleen txistulari banda, haurrek egindako jaiotza txikiak, jaiotza handia, bertako produktuen sortak zera-matzaten haurrak, kriseiluak,

Giro Arte dultzainero taldea eta Tolosako Musika Bandak lagundu zituzten Meltxor, Gaspar eta Baltasar bidean zehar.

Korreo kalea zeharkatu ostean, Gorriti plazatik igaro, eta Rondilla kaletik barrena, Euskal Herria Plazara heldu ziren. Bertan, erregeak zaldietatik jaitsi ostean, Musika Bandak *Errege Jaya* obra jo zuen, hirurak goran zain zeuden oholtzara igotzen ari ziren bitartean. Bertan, herritarrek agurtu zituzten, hurrei eskerrak emateaz gain.

Ondoren, Udaberri taldeko haurren txanda heldu zen. Hauek, *txulalai, agurra, fandango* eta *arin-arina* dantzatu zituzten, ekitaldiari amaiera emateko. Azkenik, Zerkausiraino joan ziren denak, eta bertan, Errege magoek haurren gutunak, besarkadak eta musuak jaso zituzten, espero zuten gau luzearen aurretik.

TXOKOLATE BEROA IRURAN

Eskualdeko beste 11 herritan ere ospatu zuten desfilea. Guztiek ere arratsaldean jaso zuten Errege magoen bisita. Batzuetan, ordea, harreraz gain, ekintza desberdinak burutu zituzten. Iruran, esaterako, txokolate beroa banatzen aritu ziren udaletxeko ordezkariak. Hotzarentzat erremedioa bilatu ahal izan zuten beraz, eta bertaratutako herritarrek ederki asko eskertu zuten.

Bestalde, Berrobin, Begi-Urdin Gaztegunean opariak jasotzen izan ziren arratsalde osoan zehar, eta iluntzean, Errege magoak paketez betetako karrozan jaitsi ziren menditik, guztiak hurrei banatzeko. Aurretik, gainera, pajee askaria egin zuten, indarrak berreskuratzeko. Orexan, berriz, ez zuten desfile berezirik egin, eta Meltxor, Gaspar eta Baltasar, etxez etxe ibili ziren arratsalde osoan zehar.

Presoen aldeko manifestaziora joateko deia egin du Sarek

Larunbatean bi manifestazio izango dira: Baionan eta Bilbon. Gabonetan, eskualdeko zenbait herritan, presoek elkartasuna adierazi diete herritarrek

Erredakzioa

Azken asteetan presoen eskubideen alde mobilizazioak egin dira. Altzon, presoen eskubideen aldeko elkarretaratzean 50 pertsona inguru batu ziren abenduaren 24an. Leaburun ere Orain Presoak ekimenarekin bat egin dute Gabonetan.

Bestetik, urte zahar egunean, *Orain Presoak* lelopean manifestazioa egin zuten Villabonako Errebote plazatik Zizurkilgo Joxe Arregi plazara. Aiztondoko Sare plataformak deitu eta Aduña, Alkiza, Amasa-Villabona, Asteasu, Larraul eta Zizurkilgo udalek babestutako mobilizazioa izan zen. Tolosan ere, urtero moduan, manifestazioa egin zen, Trianguloa plazatik abiatuta, Alde Zaharreko kaleetan.

BILBORA JOATEKO AUTOBUSAK

Larunbatean, Orain presoak eta Ipar Euskal Herriko Bakegileek dinamiken laguntzarekin, Sare plataformak manifestazioak antolatu ditu Bilbon eta Baionan. Bizkaiko hiriburura joateko, eskualdetik autobusak antolatzen ari dira. Ohiko tabernetan eman daiteke izena, eta goizez nahiz arratsalde bertaratze aukera

izango dute herritarrek. Itzulera-ko autobusak, berriz, gauean eta goizaldean izango dira.

Bilboko manifestazioan sindikalgintza osoaren ordezkariak izango dutela nabarmendu nahi izan dute Sareko kideek aste honetan zehar. «Sindikatuarekin batera, beste eragile zein alderdi politikoei ere parte hartzeko gonbitea luzatzen diegu, guztiok baikara beharrezkoak. Alor instituzionalean lortutako espetze politikaren aldaketa eskatzeko adostasunak egin bezala, Bilbon eta Baionan gizarte zibil osoa batzea beharrezkoa da».

Honekin batera, jakinarazi nahi izan dute Herrialde Katalanetatik ordezkariak politikoa ez ezik, preso diren politikarien senideak ere manifestazioan izango direla. «Baionan eta Bilbon batuko gara datorren astean, elkarbizitzan bizitzeko dugun nahia eta bakerako dugun desira oinarri, etorkizun hobe bati atak zabaltzeko, baita espainiar eta frantziar estatuei oraindik bake justu eta iraunkor baterako baldintzak ez direla bete esateko». La Casillatik abiatuko da Bilboko manifestazioa, 17:00etan. Ordu berean, Errepublikak plazatik irten-engo dira Baionan bildutakoak.




Tolosako Babarruna
GOZA ITZAZU
www.tolosakobabarruna.eus
Tel.: 943 65 02 53



Shanti txapelketa, giro onean

XXXVII. edizioako finalak jokatu zituzten Errege eguneko goizean, Tolosako Usabal Kiroldegian; aurtengoan, 9 eta 12 urte bitarteko 700 haurrek hartu dute parte

Irati Saizar Tolosa

Errege egunak berekin dakar Shanti Txapelketako finala. Usabalgo areto futboleko kan txako harmailak leporaino bete ziren igandean, eta animo eta txalo artean jokatu ziren bost finalak.

Eguberrien amaiera, beraz, tentsio, ilusio eta urduritasun artean pasa zuten askok eta askok.

IRABAZLEAK

Benjamin mutiletan (2008an jaiotakoak), Serreria Salaberria taldeak 4-2 irabazi zion Tximista junior taldeari.

2009an jaiotakoaren arteko finalean, Karela Xarek 7-2 irabazi zion Egarriko Tigreak taldeari. Benjamin nesketan, berriz, Ausartak gailendu zitzaion Lagunak taldeari penaltietan, bana berdindu ostean.

Alebin nesketan ere, penaltietan erabaki zen txapelduna. Kasu honetan, Beastiko Tigreek irabazi zuten Neska Alaiak tal-

dearen aurka, partida hutsean amaitu ondoren.

Azkenik, alebin mutilen mailan, Anoeta eta Beteluko taldeen arteko lehian, eskualdekoek lortu zuten garaipena: 2-1.

Goiza bukatzeko, ilusio eta emozio artean sariak jaso zituzten parte hartzaile guzti-guztiak. Tartean, Aiara Agirrezabala eta Telmo Aramendi futbolariari sari berezia eman nahi izan zieten antolatzaileek, txapelketan zehar erakutsitako futbolagatik eta laguntasunagatik.



Final guztiak amaitu ostean, eta sari guztiak banatu ondoren, argazki erraldoia atera zuten parte hartzaileek. IRATI SAIZAR



Urtetik urtera indartuz doan hitzordua da Shanti torneo; eskualdeko gazte askok hartzen dute parte. I.S.



GUTUNA

Eskerrik asko Milagrosi emandako zaintzagatik

Villabonako Santiago Zaharren Egoitzako langile, laguntzaile eta osasun-langile guztiei eskainia.

Zuen lanaren eta bokazioaren merituen definizioa, 13 urtetan zehar emakume zoragarri honi eskainitako motibazio eta enpatia dira. Aurrez ezagutu gabe eta bere gabezia fisiko eta mentala kontuan izanda, berak merezi zuen moduan zaindu duzue. Honek, denbora guzti honetan, familiako kide guztiei bere gaixotasuna hobeto eramaten lagundu digu. Zuen lanak ez du preziorik, baina aipatu beharrekoa da, eta horretagik, idatzi honen bidez merezi duen garrantzia eman nahi diogu.

Gure familiako kide honek egotza horretan egunero jasotako maitasunak, dedikazioak eta errespetuak, neurtu ezin den balio emozionala du bere familia guztientzat. Bere gaixotasunak hain ahul eta zaurgarri bihurtu zuen, guk ere ezin izan genuela

babestu, eta zuengana jo behar izan genuen. Osasun-langileek zainduko zutela jakiteak, zentzura sarrera onartzen lagundu zigun eta denborak arrazoia eman digu, urte guzti hauetan berari eskainitako arretan, maitasunean eta berearekin izandako detaile politetan lekuko izan garelako.

Urteetan zehar partekatutako istorioen ondorioz, guk horrenbeste maite izan dugun emakumea ezagutzera iritsi zarete. Nahiz eta Milagros hitz egiteko eta mugitzeko gai ez izan, inoiz ez zuen amore eman eta azken unera arte borrokatu zuen. Zuen zaintzari eta bere borondateari esker, elkarrekin aurre egin genion bere gaixotasunari. Antza denez, borondatea, oztopoak gainditzen eta helburuak lortzen laguntzen duen barneko indarra da. Milagros Hierroren helmuga, 2018ko abenduaren 14an iritsi zen, 92 urte zituela. Familia guztiaren izenean, beragatik eta gu guztiongatik, urte guzti hauetan egindakoa eskertu nahi dizuegu. Bere oroitzapena beti gurekin izango da.

Milagros Hierroren familia Villabona



Deusto

Ateak zabalik

Larunbata
urtarrilak **12**

Donostiako campusa
Arrupe eraikina (Mundaiz, 50)
Bilboko campusa
Klaustroak

Ordutegia: **10:00 - 14:00**



Deustuko Unibertsitatea
Munduko Top-6an
2018



Eman izena!
ateakzabalik.deusto.eus

KIROLEMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

15. jardunaldia (abenduak 23)	
Alzira F.S.–Laskorain	5–2
Auzoak de Zierbena–Lauburu	2–5

Saillapena

1. Tafatrans	33p
2. Lauburu Ibarra	33p
3. Pinseque	31p
12. Laskorain	15p

Hurrengo jardunaldia

Sala 2012 (13)–Laskorain (12)
Juv. del Circulo (10)–Lauburu (2)

GIPUZKOAKO SENIORRAK

Saillapena

3. Lauburu Ibarra	12p
7. Anoeta FT	3p
8. Samaniego Orixe Tolosaldea	0p

Hurrengo jardunaldia

(6. jardunaldia)
Garoa taberna (5)–Lauburu (3)
S. O. Tolosaldea (8)–Anoeta F.T. (7)

Binakako Pilota Txapelketa

7. jardunaldia

Altuna III–Martija	13
Bengoetxea VI–Imaz	22
Ezkurdia–L–Galartza	16
Artola–Mariezcurrrena II	22

Saillapena

1. Elezkano II–Rezusta	5–2
2. Irribarria–Zabaleta	5–2
3. Olaizola II–Albisu	5–2
4. Artola–Mariezcurrrena II	4–3
5. Bengoetxea VI–Imaz	3–4
6. Ezkurdia–Galartza	2–5
7. Altuna III–Martija	2–5
8. Urrutikoetxea–Aretxabaleta	2–5

Hurrengo jardunaldia

Altuna III–Martija
Ezkurdia–L–Galartza
Bengoetxea VI–Imaz
Artola–Mariezcurrrena II

Binakako Promozioko Txapelketa

1. jardunaldia

1. Agirre–Salaverri	1–0
2. Arteaga II–Urretabizkaia II	1–0
3. P. Etxeberria–Garmendia	1–0
4. Elordi–O. Etxebarria	1–0
5. Dario–Ruiz	0–1
6. Ugalde–Tolosa	0–1
7. Alberdi–Erasun	0–1
8. Peña II–Aranguren	0–1

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

16. jardunaldia (abenduak 23)	
Tolosa CF –Allerru	2–0

Saillapena

1. Eibar	41p
2. Anaitasuna	36p
3. Tolosa CF	34p
4. Mondragon	27p

Hurrengo jardunaldia

Añorga (17)–Tolosa CF (3)

EUSKAL LIGA

16. jardunaldia

Tolosa CF–Mariño	7–1
------------------	-----

Saillapena

1. Arratia	41p
2. Tolosa CF	37p
3. Pauldarrak	33p
4. Leioako Emakumeak	31p
5. Barakaldo	29p

Hurrengo jardunaldia

Elorrio (12)–Tolosa CF (2)

ERREGIONAL PREFERENTEA,

LEHEN MULTZOA

15. jardunaldia (abenduak 23)

Billabona KE–Urnieta	0–1
Tolosa CF ‘B’–Touring	0–0

Saillapena

4. Billabona	28p
10. Tolosa CF ‘B’	20p

Hurrengo jardunaldia

Billabona KE (4)–Mariño (16)
Tolosa CF ‘B’ (10)–Vasconia (3)

LEHEN ERREGIONALA,

BIGARREN MULTZOA

15. jardunaldia (abenduak 23)

Danena–Asoleus	4–1
Intxurre–Kostkas	2–1

Saillapena

1. Danena	35p
5. Intxurre	26p

Hurrengo jardunaldia

Usurbil (3)–Danena (1)
Ostadar (11)–Intxurre (5)

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Saillapena

6. Tolosa CF ‘B’	17p
------------------	-----

Hurrengo jardunaldia

Lei. Arizmendi (4)–Tolosa C.F. ‘B’ (6)
--

GORENGO MAILA, 2. MULTZOA

14. jardunaldia (abenduak 23)

Goierri Gorri–Intxurre KKE	2–0
----------------------------	-----

Saillapena

8. Intxurre KKE	9p
-----------------	----

Hurrengo jardunaldia

Intxurre (8)–Hernani (4)



Batel denboraldian parte hartuko duten Tolosaldeko Arraun Klubeko partaideak. TAK

Tolosaldea, arraunaren habi

2019ko batel denboraldia aurkeztu du Tolosaldeko Arraun Klubak Tolosako Zerkausian; guztira 117 arraunlari ariko dira

Erredakzioa

Errege egunean Tolosaldeko Arraun Klubak 2019ko batel denboraldiko aurkezpena egin zuen Tolosako Zerkausian, beren etxean. Guztira 117 arraunlari ariko dira urte honetan TAKen izenean arraunean. Tolosaldeko Arraun Klubaren giltzarrietako bat harrobia da. Tolosako Oria ibaian hazi eta hezi dira, gerora, lehen lerroko tostetan arraun egin duten hainbat eta hainbat arraunlari. Tolosaldea, lehorrean egonagatik, erreferente da bateletan, gazteak arraunlari egiteko lanetan.

Zenbakiak gora egin dute. Izan ere, hazten ari den kluba da TAK.

Urtetik urtera zenbaki potoloagoak ematen ditu. Aurten, esaterako, 145 lagunek osatzen dute Tolosaldeko Arraun Kluba.

TAK, MAILAZ MAILA

- 1. Infantil eta kimuak (mutilak). 22 arraunlari.
- 2. Infantil eta kimuak (neskak). 30 arraunlari.
- 3. Kadete mutilak. 12. arraunlari.
- 4. Kadete neskak. 19 arraunlari.
- 5. Jubenil mutilak. 7 arraunlari.
- 6. Jubenil neskak. 13 arraunlari.
- 7. Senior neskak. 14 arraunlari.
- 8. Entrenatzaileak. 12 pertsona.
- 9. Kolaboratzaileak. 16 pertsona inguru.

LEHEN ASTEBURUAN, ETXEAN

2019ko batel ligako lehen asteburua izango da hurrengoa, urtarriaren 12-13koa.

Denboraldia irekiko duen estropada larunbatean izango da, hilaren 12an, Trintxerpen. Bigarren estropada etxean jokatu dute Tolosaldeko Arraunlariak. Igandean izango da, urtarriaren 13an, 11:00etan.

Infantil eta kimu mailako neska-mutilak ariko dira alde bateatik, eta, beste alde batetik, kadeteak. TAKEko lagunak Tolosaldeko herritarrek lehen pauso horietan eskualdeko arraunlariak animatzera joatea gonbidatu dituzte.



TAKEko senior mailako neskak. TAK

Oraingo ez da apusturik izango

Aitzol Atutxak ez du onartu Iker Vicentek egindako desafioa, eta, beraz, ez zen Kantabriko hitzordura azaldu



Iker Vicente, Arria V.aren aurkako apustuan, Tolosako zezen plazan. ASIER IMAZ

Erredakzioa Tolosa

Aitzol Atutxak sare sozialetan adierazi zuen ez zela Tolosako Kantabriko tabernara azalduko larunbatean, Iker Vicentek proposatutako hitzordura, eta horrela izan zen. Herri kirol zale askok mendeko apustua izendatuta duten desafioa, oraingo behintzat, ez da burutuko.

Atutxak bere buruarekin tirabirak izan ditu apustuaren aurrean, baina azkenean erabaki du desafioa ez onartzea. Aizkora ez dela bere ogibidea eta beste konpromiso batzuk badituela azaldu du ezezkoa ematearen arrazioen artean.

Vicentek botatako proposamena honakoa izan da: 60 ontza-

ko 20 enbor bizkorren nork ebaki. Gainera, Tolosako zezen plazan izatea nahi zuen, apirila baino lehen.

Atutxa bost aldiz izan da Euskal Herriko txapeldun, eta Vicentek azken bi txapelketetan bigarren postua lortu du; hain justu, Atutxaren atzetik. Arantza txiki bat geratu zitzaioela eta, «atera beharra sentitu dudalako bota diot desafioa», zioen otsagabiarrek duela gutxi. Egungo bi aizkolari onenak direla esaten da, eta ikusmin handia egon da, azken hilabeteetan, bien arteko desfiorik egingo zen ala ez jakiteko. Iker Vicentek aurretik Arria V.aren aurka apustua irabazi zuen Tolosako zezen plazan iazko apirilean.

Artola lau punturekin eta Altuna birekin, ligaxkaren erdian

Zazpi partida jokatu direnean, Artola laugarren tokian dago Binakako Pilota Txapelketan; Altuna zazpigarren postuan doa

Erredakzioa

Binakako Pilota Txapelketan iritsi dira ligaxkaren erdira. Zazpi partida jokatu dituzte bikote guztiek, eta finalerdietara igarotzeko aukerak argitzen ari dira dagoeneko. Iñaki Artola alegiarrak, Mariezkurrena II. arekin batera, lau puntu lortu ditu. Jokin Altuna amezketarrak, Martijarekin batera, bi puntu lortu ditu. Artola laugarren doa sailkapenean. Altuna, berriz, zazpigarren. Gogoan izan behar da lehen lau bikoteak igarotzen direla finalerdietara.

Asteburu honetan jokatu dituzte norgehiagokak. Artola eta Mariezkurrena II.ak 22-16 irabazi diote Ezkurdia eta Ladis Galartzari, Tolosako Beotibar pilotalekuan jokaturako partida gogor eta borrokatuan. Garaipenak alegiarrari eta bere bikoteari puntu garrantzitsua eman die, orain laugarren baitoaz, buruan doazen hiru bikoteetatik puntu batera.

Neurketa serioa eta tanto bakoitza sufrituz eskuratu dute Asegarceko pilotariak garaipena. Artolak lau sake sartu zituen, zazpi tanto egin eta bakarra galdu. Ostiralean Bengoetxea VI.aren eta Imazen aurka jokatu-korde, Getarian.

Altuna III.ak eta Martijak oso neurketa garrantzitsua zuten, sailkapenean goraka joan edo



Iñaki Artola, artxiboko irudi batean. ASIER IMAZ

bertan gelditzeko. Azkenean 22-13 galdu zuten Iruñeko Labrit pilotalekuan jokaturako partidari, Bengoetxea VI.a eta Imazen aurka. Bengoetxeak joko oso ona erakutsi zuen eta sake bat eta 13 tanto eginez, Altuna baino gehiago izan zen lehen koadroetan. Amezketarrak sake bat eta bederatzi tanto egin zituen, eta 6 pilota galdu zituen.

Altunak eta Martijak larunbatean izango dute hurrengo partida, Labrit pilotalekuan hau ere, Ezkurdia eta Ladis Galartzaren aurka.

PROMOZIO TXAPELKETA, ABIAN

Eskualdeko lau pilotari ari dira lehian asteburu honetan hasi den Promozioko Binakako Txa-

pelketan. Tolosa anoetarrak ezin izan zuen jokatu, lesionatuta baitzegoen, eta bere ordez Jaurarenak jokatu zuen. Ugalderekin batera 20-22 galdu zuen Etxeberria eta Garmendiaren aurka.

Eskualdeko bi pilotari elkarren aurka aritu dira lehen jardunaldian. Urretabizkaia II.a ikaztegietarrak Arteagarekin jokatu zuen, Bakaikoa lesionatuta baitzegoen, eta 22-14 irabazi zuten Alberdi eta Erasun zizurkildararren aurka.

Peña II.a aurrelari tolosarrak ez zuen hasiera ona izan Arangurenekin batera, 22-12 galdu baitzuten Agirre eta Salaverriren kontra. Asteburu honetan jokatuko dute bigarren jardunaldia.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



ASTEARTEA, 2019KO URTARRILAK 8
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 08

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Albisteak, Iker Ibarluzearekin eguraldia. Aintzane Artolaren errezeta, Joanes Karre-ra arkeologoa eta eskualdeko musikariaren proposamena.

12:00-13:00. Entzuteko jaioak.

16:00-18:00. Zebrabidea.

18:00. Eguneako saioen onena.

20:00. Kokondo. Musika saioa.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

16:30. Zer da hau? antzezlan.

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

22:15. Ireki Kaxa: Ander Ortiz de Murua.

23:00. 28Klip.

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Eguneakoa. Leyre Lejeune Maset. Euskal Herria kalea, 24. Telefono zenbakia: 943 67 32 74.

TOLOSA. Gaueakoa. Lourdes Azpiroz Galarza, Amarotz auzoa, 9. Telefono zenbakia: 943 67 5118.

EGURALDIA

Iker Ibarluzea

Gaur. Giro hotza izango dugu eta egunak aurrera joan ahala kaskartzera egingo du. Goizean hodei multzo ugari izango baditugu ere, giro lasaia izango da eta ez du euririk egingo. Egunekeo erdiko orduetan gainera ostar-tetxo batzuk zabalduko dira. Arratsaldean hodeiak ugaritu eta azken orduetan euri pixka bat izango dugu. Haizeak ipar-mendebaldeko ukitua hartuko du eta tenperatura maximoek 7-8 gradutan joko dute goia.

Bihar. Negu ukitua hartuko du eguraldiak. Egun osoan ipar-haize hotza nagusituko zaigu eta horrekin eta erdi-mailako geruzetan sartuko den aire hotzarekin tenperaturek behera egingo dute. Zeruak egun osoan estalirik mantenduko da eta euri zaparradak izango ditugu. Zaparrada ugariak goizean emango dira. Hoztu egingo

duenez elur-mailak behera egingo du, eguerditik aurrera 800 metroan elurra botaz eta egun amaieran 500 metroan edo beherago ere zurutiaz.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK



Zorionak!

Nahia Lopetegui Etxedona (Gaztelu). Errege eguneko partez zorionak eta ondo pasa etxeko guztien partetik.



URTEKO LEHENA EGIN DUTE

Astelehenero bezala, eskualdeko pentsiodunek, manifestazioa egin zuten atzo, Tolosako Alde Zaharreko kaleetan zehar. Pentsio justu eta duinen aldeko aldarrikapenak egin zituzten, bizi duten egoera salatu asmoz. Dozenaka erretirodunek hartu zuten parte mobilizazioan eta Oneka plataformak antolatutako Isabel Otxoaren *Emakumeak eta pentsioak* hitzaldirako gonbidapena ere luzatu zuten. Hitzaldia bihar izango da, 18:00etan, Donostiako Koldo Mitxelena. J. ARTUTXA

tolosaldeko atariak

MARKETIN ETA SUSTAPEN ARDURADUNA ETA IGANDEETAKO KAZETARIA BEHAR DITU

ESKATZEN DA:

- Marketin arloko ezagutzak izatea.
- Euskaraz jakitea.
- Tolosaldean edo inguruan bizi eta eskualdea ongi ezagutzea.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa eta gidabaimena izatea.

KONTUAN HARTUKO DA:

- Sustapen lanetan eskarmentua edukitzea.
- Diseinu edo bideogintza alorra kontrolatzea.
- Sare sozialak erabiltzen jakitea.
- Bulegoko programa informatikoak ezagutzea.

ESKAINTZEN DA:

- Kontratu iraunkorra.
- Lantokia Tolosan.

Erreferentzia: MART-SUST-2019

ESKATZEN DA:

- Kazetaria, ikus-entzunezko komunikazioa edo adar horretako ikasketak.
- Euskaraz jakitea.
- Tolosaldean edo inguruan bizi eta eskualdea ongi ezagutzea.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa eta gidabaimena izatea.

KONTUAN HARTUKO DA:

- Teknologia berrien ezagupena.

ESKAINTZEN DA:

- 6 hilabetetako kontratua, gutxienez.

Erreferentzia: KAZE-2019

Interesa duenak **Curriculum Vitae** zehatza bidali Tolosaldeko Atariara (San Esteban, 20. 20400 Tolosa) edo tkt@ataria.eus posta elektronikora, erreferentzia zehaztuz. **2019ko urtarrilaren 15a baino lehen.**